



elika

Fundación Vasca para la  
Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien  
Segurtasunarako  
Euskal Fundazioa

## PENTSU FABRIKETAKO TRAZABILITATEA ETA KONTINGENTZIA PLANA

### Sarrera

EEB “mugarria” izan zen Europako elikagaien segurtasunaren ikuskeran. Hamarkada eta erditik gora igaro da ordutik, eta hainbat araudi argitaratu dira krisien agerraldietatik eratorritako ondorioak aurreikusi eta geldiarazteko.

Ahaleginak ahalegin, elikagaien ekoizpenaren arloko kontrolen hobekuntza eta optimizazioa egin den arren, elikagaien inguruko krisiak gertatzen dira oraindik ere, eta horrek eragina du kontsumitzaileen konfiantzan, kontsumitzen dituen elikagaien kaltegabetasunari dagokionez.

Hori dela eta, guztiz beharrezkoa da pentsu-ekoizleak prest egotea. Horretarako, **Trazabilitate Sistema** eta **Kontingentzia Plan** baliozkotua izan behar dute, elikagaien segurtasunarekin lotura duen arazoren bat sortzen bada **erantzun azkarra eta egokia ematea** ahalbidetzen diena.

1

### Trazabilitatea: pentsu-ekoizlearen erantzukizuna

Honako hau da trazabilitatea: “elikagai, pentsu, elikagaietarako animalia, elikagaietan edo pentsuetan gehitzeko substantzia edo horretarako aukerak dituen substantzia baten **arrastoa aurkitu** eta ekoizte-, eraldatze- eta banatze-**etapa guztietan jarraipena egiteko** aukera”. (178/2002 EB Araudiko 3. artikulua).

Hortaz, trazabilitatea **lanabes bat da**, azken helburutzat merkaturatutako nekazaritzako elikagaien kaltegabetasuna bermatzea duten beste sistema batzuk (esate baterako, kontingentzia- edo baztertze-plana) aplikatzearen edo abiaraztearen alde egitea ahalbidetzen duena.

Elikakatean trazabilitate-sistemak erabiltzeak arazoren bat eragin dezaketen produktuak atzeman eta baztertzeko aukera ematen du. Horrela, **kontsumitzaileen osasuna babesten da**, eta elikagaien krisiekin lotutako kalte ekonomikoak ere murrizten dira. Halaber, enpresen eta agintari eskudunen erantzuna errazten da.

Bestalde, trazabilitate-sistema on bat badago, gertakizun jakin batean zerikusia duten alderdi guztien **erantzukizuna identifikatu eta zigortu** ahal izango dira.

Horrekin bat, araudiak ezartzen du **pentso-enpresetako ustiatzaileak** izango direla pentsuen segurtasun-arloko legeen arau-hauste guztien **erantzuleak**. Araudiak honako hau ezartzen du: pentso-ekoizle batek uste badu (edo uste izateko arrazoiak baditu) berak eraldatu, ekoitzi edo banatu duen pentsuren batek **ez dituela kaltegabetasun-betekizunak betetzen, berehala aterako du** merkatutik, eta horren berri emango die agintari eskudunei.

Gainera, fabrikatzaileak zehatz-mehatz **jakinaraziko die** pentso horren erabiltzaileei zergatik atera duen pentsua merkatutik eta, beharrezkoa bada, produktuak berreskuratuko ditu.

## Trazabilitate-sistema baten oinarrizko printzipioak

2

Araudiak honako betekizun hauek ezartzen dizkie pentso-enpresei:

- ✓ pentsuren bat edo pentsuetan gehitzeko zein gehitzeko aukerak dituen edozein substantziaren bat nork hornitu dien identifikatzeko aukera izan beharko dute.
- ✓ Euren produktuak zein enpresari hornitu dizkioten identifikatzeko sistemak eta prozedurak abiarazi beharko dituzte. Informazio hori agintari eskudunei helaraziko diete, haiek hala eskatuz gero.
- ✓ Merkaturatutako pentsuak behar bezala etiketatu edo identifikatu behar dira, euren trazabilitatea beharrezko dokumentazioaren edo informazioaren bidez ahalbideratzeko.

Horrek esan nahi du **pentso-fabrikek euren hornitzaileak eta bezeroak identifikatzeko moduan** egon behar dutela. Gainera, informazio horretarako **erregistro-sistemak** izango dituzte.

Horretarako, pentso-fabrika bateko trazabilitate-sistemak honako hauek izan behar ditu oinarri:

1. Atzerako trazabilitatea (hornitzaileekin lotuta).
2. Barneko trazabilitatea (ekoizpen-prozesuarekin lotuta).
3. Aurrerako trazabilitatea (bezeroekin lotuta).

Fabrika bakoitzak bertako egitura- eta ekoizpen-ezaugarriei egokitutako trazabilitate-sistema izan behar du. Oro har, honako hauek dira mantendu beharreko erregistroak:

<b>Atzerako trazabilitatea</b>	2.- Hornitzailearen datuak	Izena, IFK, helbidea, telefono-zenbakia
	Lehengaiaren sarrera-datuak (gehigarriak, aurre-nahasketak, etab. barne).	Produktua (aldaera edo mota), kopurua, igortze-data, jatorria (helbidea; ekoizlearen izena, ezagutzen bada), sarrera-data, lehengaiaren baldintzak (kontrol fisiko-kimikoa, laginketa).
	Datu merkantilak	Albarana.
	Garraio-datuak	Garraio-enpresaren eta garraiolariaren matrikula eta identifikazioa (garraiolariaren sinadura), harremanetarako datuak, garraioaren egoera (garbitasuna, mantentzea, etab.).

<sup>1</sup> Une horretan lote-zenbaki bat eman beharko zaio lehengai bakoitzari.



<b>Barneko trazabilitatea:</b>	Lehengaien biltegiatzeari buruzko datuak.	Biltegiatze-siloa edo lekua (lehengaiaren lote-zenbakiarekin duen lotura)
	Sortutako gehitze, banatze, nahaste eta eraldatze guztien erregistroa.	Eguna eta ordua.
	Azken produktuaren identifikazioa.	Produkzio-lotearen zenbakia.
<b>Aurrerako trazabilitatea</b>	Bezeroaren datuak.	Izena, IFK, helbidea, harremanetarako telefono-zenbakia, deskargaren helmuga (ustategia, biltegia, etab.).
	Azken produktuaren datuak.	Lote-zenbakia (igortze-lotea, hala badagokio), produktua, kopurua, kontratu-albaranaren erreferentzia-zenbakia.
	Fabrikako irteera-data.	(Harrera-eguna).
	Garraio-datuak	Erabilitako garraioa (matrikula, garraio-enpresa, garraiolaria, harremanetarako datuak).

Trazabilitate-sistemetan berebiziko garrantzia du **lote** ezberdinak definitu eta zerrendatzeak. Hori dela eta, era argian lotu beharko dira erabilitako lehenkien loteak produkzio-loteekin eta, hala badagokio, igortze-lotearekin.

Lotea da egoera ia berdinean sortu, ekoitzi edo ontziratutako produktu baten unitate-multzoa.

## Kontingentzia Plana

Pentsu-ekoizleek produktu seguruak jarri behar dituzte merkatuan, hau da, eragiten dieten lege-betekizunak betetzen dituztenak. Azken urteotan ikusi ahal izan den bezala, batzuetan, beharrezko neurriak hartu diren arren, arazoak sortzen dira.

Bestalde, legeriak honako hau ezartzen du, pentsu-ekoizleei dagokienez: “banaketa-zirkuituan dauden produktuak **berehala baztertzeko sistema** izatea eta baztertutako produktuen helmugei buruzko **prozedura idatzia** definitzea (...)”.

Horrek esan nahi du pentsu-enpresek Kontingentzia Plana izan behar dutela, pentsu-fabrika bakoitzaren arabera izan behar duena. Planean honako hauek agertu behar dute:

- ✓ Krisi Batzordea sortzea (ardurak banatzea). Garrantzitsua da Ez Adostasunaren (EA) ebazpena kudeatzeaz arduratuko den harremanetarako pertsona identifikatzea.
- ✓ Harremanetarako kontaktu garrantzitsuen zerrenda (hornitzaileak, bezeroak, agintari eskudunak, aholkularitza-erakundeak, laborategiak...).
- ✓ Komunikazio Plana (zer, nork eta nola ematen dien berria kaltetuei, langileei, agintariei...).
- ✓ Jarduera Plana. Bere azken helburua da pertsonentzat, animalientzat edo ingurumenarentzat arriskutsuak izan daitezkeen pentsuak edo substantziak baztertzeta. Jarduera Planean honako hauek agertu behar dute:
  - Jasotako informazioa (iturria, jatorrizko enpresa, mota, arrazoia).
  - Trazabilitatea: Kaltetutako produktuaren identifikazioa (loteak, kantitatea, kokapena...).
  - EA ireki eta horren jarraipena egitea. Hornitzaileari buruzko informazio gehiago biltzea (kaltetutako loteak eta kopuruak, kaltetutako partiden datak, hornitzailearen analitikak, etab.).
  - Laborategiko analitikak baloratzea (tolerantziak, tekniken egiaztatpena, etab.).

- Arriskua baloratzea (lege-mugak, produktu-motak eta horien helmugak, produktuen formulazioa...).
- Hartutako neurriak eta ekintza zuzentzaile eta prebentiboak. Produktu bat baztertzen denean, garrantzitsua da egindako jarduera guztiak eta erabilitako lanabesak jasotzen dituen erregistroa egitea.
- Laborategian analitika berriak egiteko aukera (laginketa-gunea, geldiarazitako produktua...).
- Kaltetutako enpresen/ustiategien zerrenda.
- Azken txostena eta ebaluazioa

Kontingentzia Planak dokumentu “bizia” izan behar du. Sarri neurtu, berrikusi eta eguneratu behar da, betiere aintzat hartuta pentsuen ekoizpenari, lehengaien merkatuari eta arrisku emergenteei lotutako baldintza aldakorrak.

## Ondorioak

- Hori dela eta, guztiz beharrezkoa da pentsu-ekoizleak prest egotea. Horretarako, **Trazabilitate Sistema eta Kontingentzia Plan** baliozkotua izan behar dute, **elikagaien segurtasunarekin** lotura duen arazoren bat sortzen bada erantzun azkarra eta egokia ematea ahalbidetzen diena.
- Trazabilitatea **produktu** jakin bat arin **aurkitzea** ahalbidetzen duen **lanabesa** da. Horrela, pertsonen eta animalien osasunerako zein ingurumenerako arriskutsuak izan daitezkeen produktuei buruzko jakinarazpena egitea eta/edo produktu hori baztertzea ahalbidetzen da.
- Beharrezkoa da **pentsu-fabrika bakoitzak dokumentatutako eta eguneratutako Kontingentzia Plana** izatea. Bertan jasoko dira merkaturatzen dituen produktuen segurtasunari eta/edo kalitateari eragiten dion arazoren bat agertzen denean hartu beharreko neurriak.

## Gomendatutako bibliografia

- AESAN. Guía para la aplicación del sistema de Trazabilidad en la empresa agroalimentaria.
- AESAN. Orientaciones de la aplicación de los artículos 11, 12, 16, 17, 18,19 y 20 del Reglamento (CE) N° 178/2002
- Claves para la aplicación de sistemas de trazabilidad y de las buenas prácticas de higiene en el sector cerealista de España.
- ELIKA. IKASELIKA material didaktikoa. Trazabilitatea.
- APPCC en fábricas de piensos. Contingencia y retirada. Humberto Nogueira. Dirección de Calidad Alimentaria. DMAOTAP-GV.

## Legeria

- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren [178/2002](#) (EB) Araudia, 2002ko urtarrilaren 28koa, elikagaiei buruzko legeriaren betekizun orokorrak eta printzipioak ezartzen dituena, Elikagaien Segurtasunerako Europako Agintaritza sortzen duena eta elikagaien segurtasunari buruzko prozedurak ezartzen dituena.
- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren [183/2005](#) (EB) Araudia, 2005eko urtarrilaren 12koa, pentsuen higiene-betekizunak ezartzen dituena.
- [1144/2006](#) Errege Dekretua, urriaren 6koa, pentsuen higiene-arloari buruzko araudi erkidearen ezarpen-baldintzak arautzen dituena.
- Europako Parlamentuaren eta Batzordearen [1830/2003](#) (EB) Araudia, 2003ko irailaren 22koa, genetikoki eraldatutako organismoen trazabilitateari eta etiketatzeari eta horiekin ekoiztutako elikagai eta pentsuen trazabilitateari buruzkoa. [2001/18/CE](#) zuzentaraua aldarazten du.
- Europako Parlamentuaren eta Batzordearen [1831/2003](#) (EB) Araudia, 2003ko irailaren 22koa, animalientzako elikagaietako gehigarriei buruzkoa.
- [90/2005](#) Dekretua, apirilaren 12koa, animalien elikaduraren gaineko kontrol ofizialen antolaketari eta arriskuak ekiditeari buruzkoa.